

## **Informazio-zirkularra: TICKET BAI**

Sistema berri bat da, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-ogasunei aukera ematen diena jarduera ekonomiko guztietako diru-sarrerak kontrolatzeko eta, horrenbestez, zerga-iruzurra eragozteko.

Zehazki, egindako fakturak zuzenean Ogasunera bidaltzean datza.

TicketBai-k jarduera ekonomikoak dituzten pertsona fisikoei, pertsona juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko entitateei eragiten die, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edota Sozietateen gaineko Zergan foru-araudien mende badaude.

TicketBai-ren betebeharra betetzeko baldintzak:

1. Fakturatzeko, TicketBAIren baldintza teknikoak betetzen dituen software bat erabiltzea. Hala ere, foru-ogasun bakoitzak aplikazio bat jarriko du zergadunen eskura –haien jardueran fakturak etengabe egin behar ez badira–, baldintza guztiak betez sor ditzaten fakturak.
2. Ogasunari bidaltzea fakturazio-softwareak sortutako artxiboak; faktura sortzen den unean bertan, XML-TicketBai artxiboa igorriko da. Horrek esan nahi du Interneterako sarbidea eduki behar dela.
3. Faktura bezeroari ematea, paperezkoa edo euskarri elektronikoan. Fakturak TicketBai identifikazio-kodea eta QR-kodea izango ditu. Bezeroa, QR-kodea eskaneatuta, Foru Ogasunaren webgunean sartu ahal izango da, eta egiaztatu ahal izango du faktura zuzena dela eta bidali egin dela.

TicketBai Araban ezartzeko egutegia hau da:

- 2022/01/01 – Borondatezkoa.
- 2022/04/01 – Arabako Foru Aldundiaren laguntzaile diren aholkularitzak (pertsona fisikoak eta juridikoak).
- 2022/07/01 - Sendagaien, osasun-produktuen eta higiene pertsonaleko produktuen txikizkako salerosketa, bai eta JEZaren epigrafeetako 2. atalean sartuta dauden lanbide-jarduerak ere.
- 2022/10/01 – Gainerako zergadunak.

TicketBai eskuratzen eta ezartzen laguntzeko, egindako inbertsioen eta gastuen %30eko kenkaria dago, sistema derrigorrezko aldiaren aurretik ezarriz gero. Kenkaria %60raino handituko da, baldin eta TicketBai betebeharra epe honetan betetzen hasiz gero: 2022/01/01etik derrigorrezko aldia baino gutxienez hilabete bat lehenagora bitartean. Adibidez, sisteman 2022/10/01ean sartu behar duten zergadunek, %60ko kenkari handitua aplikatu ahal izateko, **2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abuztuaren 30era bitartean** ezarri beharko dute sistema.

Isuna jarriko da TicketBai ezartzen ez bada.

Gehiago jakiteko:

Araba: [TicketBAI \(araba.eus\)](https://www.ticketbai.araba.eus)

Gipuzkoa: [TicketBAI - Ogasuna \(gipuzkoa.eus\)](https://www.ticketbai-gipuzkoa.eus)